



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-03-14

BILERA ZENBAKIA:47

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Itziar, Erkuden, Ruth, Jabi.

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPEN.
2. TOPAGUNEAREN INGURUKO HAUSNARKETA ETA ESKOLEKIN ETA GURASO TALDEAREKIN KOORDINAZIOAREN JARRAIPENA.
3. MINTZALAGUNAREKIN ZER EGIN.
4. ALDIZKARIRAKO GENERO INDARKERIA.
5. HERRI BIZITZAN EGUTEGIA AURKEZTU.
6. MARTXOAK 8KO BALORAZIOA.
7. BESTEAK.

#### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA:

Akta onartu da.

#### 1. TOPAGUNEAREN INGURUKO HAUSNARKETA. ESKOLAREKIN ETA GURASO TALDEAREKIN KOORDINAZIOAREN JARRAIPENA.

**Eskolarekin eta guraso taldearekin koordinazioa:** Eskolak interesa azaldu zuen berdintasun gaian, nahiz eta ez duen proposamenik bidali. Guraso taldeak gaia beraien jardueren baitan jartzeko interes handia azaldu zuten.

Sexunerekin batera guraso taldeari eta eskolari eskaintzeko programa bat diseina daitekeela aipatu da. Gurasoekin eta eskolarekin hitz egin ea proposatutakoa ondo datorkien eta noiz egin konkretatu.



Maiatzean egitea egoki ikusten da lantaldetik. (Bileraren ondorengo egunetan, eskolak interesa azaldu du Sexuneren zerbitzuetan, eta, eskaera bat luzatu du)

1. 8 urtetan aurrera 1 orduko saioan eskaintzea duten "irakurketa gorputza" dinamika.
2. Osatuagoa eta guztiokin baliogarria izango litzatekena "sexu hezkuntzarako materiala" helduei zuzenduta 6 orduko saioa.

Topagunearen proposamena:

**Goiza:** Gogoeta ekintzak egitea proposatzen da. Ekintza gidatuen bitartez. Proposamenak:

1. Bi taldetan banatu gizonak eta emakumeak. Bakoitzak bere esparruan, interesguneak landu eta ondoren elkartu eta hausnartutakoaren inguruan elkarrekin hausnarketa bat egitea.
2. Hitzaldi bat ematea pertsona aditu batek, maskulinitate eta feminitatearen inguruan ikuspuntu feminista batetik.
3. Harrerako ekintza bat burutzea. Egunerokoan gertatzen zaizkigun anekdotak, edota genero bazterkeriarekin zerikusia duten esaldiak post it batean jarri eta bakoitzak bat hartzea. Horren inguruko hausnarketa bat eginez, gai ezberdinen inguruan eztabaidatzea.
4. Mikrometrajeak sortzea. Gaiarekin lotuta jendeari eskatu aurrez mikrometrajeak grabatzeko, minutu bat. Hasera bezala jarri, eta eztabaida guneak ireki.

**Batukadarekin poteoa + bazkaria:** Topaguneko parte hartzaileak bazkari baten bueltan biltzea proposatzen da, eta, bazkal ondoren bertsolariak izatea, mahai ingurua girotzeko. (Frontoia obretan egongo da, beraz plazan egin beharko da, eta, txarra egitekotan Arbelaitzen.) Bazkariaren prezioa sinbolikoa izatea proposatzen da.

**Arratsaldean:** Ekintza ludikoak egitea planteatzen da. Kontzertuak (Ander), herri kirol erakustaldia, edota bestelako ekintzak egitea proposatzen da.

**Kontutan hartu beharrekoak:**

- **Norentzat antolatu:** Herrikoei bideratu, eskualde mailan zabaldu, emakume eta gizon taldeak gonbidatu... erabaki beharra dago. Lantaldean 60-80 pertsonentzat antolatzea proposatzen da. Deialdia Itsasondo mailan egin eta gonbidatuak ere etortzea (gizon taldeak, talde feministak)
- **Dinamizazioa nork?:** Dinamizazioaz nor arduratuko den erabaki.
- **Noiz egin:** Ekainaren 30erako planteatzen da.
- **Goizko ekintzatarako lekua konkretatu:** kulturagunea proposatzen da, yoga egiten den lekua. Eguraldi ona egiten badu goizko frontoia.



- **Bazkaria antolatu.** Non egin, zeinek egin, zein baliabide beharko diren, zenbat kobratu behar den... erabaki beharra dago. Aipatu emakume eguneko bazkaria garestia izan zela, eta herritar guztiek ezin diotela prezio horiei aurre egin. Prezioa gutxitu, edota Gizarte Zerbitzuetan ticket batzuk uztea planteatu da, ordaindu ezin duen jendearentzat dirua ez dadin izan topagunean, eta, bazkarian parte hartzeko oztopo. Eskaera egin beharra dago elkartean.
- **Zaintza zerbitzua:** Goizean, hausnarketa saioan bi gurasoek parte hartu ahal izateko beharrezkotzat ikusi da. Nola egin antolatu.
- **Alde Ludikoa:** Zein ekintza aurrera eramán behar diren konkretatu eta hauekin harremanetan jarri.
- **Aurrekontua:** Zenbateko aurrekontua izango duen, eta, hori nola kudeatuko den hausnartu.
- **Zabalkundea:** Topagunean zabalkundea nola egin erabaki, eta, behin erabakita aurrera eramateaz arduratu.
- **Besteak:**

### 3. MINTZALAGUNAREKIN ZER EGIN.

Zaila ikusten da mintzalagun egitasmoarekin zerbait aurrera ateratzea, ez baitu jende askok parte hartzen.

### 4. ALDIZKARIRAKO GENERO INDARKERIA.

Aldizkariaren genero indarkeriaren inguruko idatzia talde kideen artean banatu da, datorren asterako ekarpenak jasotzeko. Aste Santu aurretik bidali beharra dago.

Aldizkariak, diru laguntza bat jaso ahal izateko, herritarrei galderak egiteko atal bat izan beharra dauka. Hori egiteaz, Erkuden eta Jabi arduratuko dira. Galdera berdintasunaren inguruan egitea planteatzen da. Herritarrei galderak egiteaz gain, orain arte egiten zen elkarrizketarekin jarraitzea erabaki da. Horretaz Ruth arduratuko da.

### 5. HERRI BIZITZAN EGUTEGIA AURKEZTU.

Erkudenek herri-bizitzako lantaldea bilduta zela aprobetxatuz, egutegiaren aurkezpena egin dio lantaldeari.

### 6. MARTXOAK 8KO BALORAZIOA.

Azken momentuan zabalkunde eta antolakuntza lanak eginez ibili dira lantaldeko hainbat kide. Deialdia ez da lantaldean landu, ez eta hau herrian aurrera eramateko modua ere. Ez da aurreikusitako gertatuko zen. Herritar batek greba antolatze eskualde bileretan parte hartu du, eta, honela heldu da herrira informazioa.



Horrez gain, herrian arrakasta izan zuen grebak, eta, Itsasondon herritar asko bildu zen bai goizean bai arratsaldean. Elkarrekin bazkaldu zuen emakume talde batek Bizi Nahi elkarteak, eta, arratsaldeko kontzentrazioa inguruko herrietako herritarrek gerturatu ziren.

Zaintza aita batzuek hartu zuten beregain, nahiz eta oso era inprobisatua izan, aurrera atera zen.

#### **Hobetu beharrekoak eta proposamenak:**

- Grebaren deialdia aztertu eta aurrera eramatea ahalbideratu ongizate lantaldetik.
- Zaintza, mobilizazioak, greba deialdia bera... aurreikusi eta behar bezala antolatu.
- Grebaren antolaketa ongizate mahai taldetik bultzatu.
- Komisio bat sortu (3-4 pertsona) grebaren antolaketaren aspektu ezberdinak landuko dituena, eta, herriko emakumeen parte hartze bultzatuko duena.
- Taldeak esku bat bota, proposamenak eta ardurak banatu.

#### **Bazkariaren balorazioa:**

- Oso ondo irten zen.
- Larunbatean izatea, hasieran erresistentziak egon baziren ere positibotzat baloratzen da, jendea lasaiago dago, ez du etxera joan beharrik.
- Gaiak bakarrik atera ziren bertso bazkarian. Bertsolariei bakoitzaren berri pixka bat eman eta librean aritu ziren ia denbora gehien.
- Prezio aldetik garestitxoa izan zela baloratu. Diru arazoak dituzten herritarrek ordaintzeko zaila, eta, posible da arrazoi horregatik norbait kanpo geratu izana. Herri-bizitzarekin hitz egin eta hurrengo bazkarirako prezioa jaitea proposatzea egoki ikusten da. Baita ticket batzuk gizarte zerbitzuetan uztea ere .
- Batukada oso ondo egon zen.
- Mikrofonoaren prestaketa ez zen aurreikusi.

#### **7. BESTEAK.**

#### **EGUTEGIA.**

Argazkilariekin hitz egin da eta egutegia egiteko prestutasuna erakutsi dute. Hilabete bakoitzean jorratu nahi diren gaiak konkretatu dira, baina garrantzitsutzat hartu da argazkilariekin ideia hauek konpartitu eta, beraien ideiak ere kontutan hartzea. Aipatu diren ideiak:

**Martxoko lantaldeko ideiak**

**Otsaileko lantaldeko ideiak**



<b>Etxeko lanak:</b> Umeak eta jubilatua batera.	<b>Kirola:</b> Umeak kirolatan, futbol edo pala txapelketa, bestelako argazkia)
<b>Lourdesenean:</b> Karroakin Lourdesenetik ateratzen norbait, jubilatua, gaztea, biak batera...	<b>Etxeko lanak:</b> Umeak plantxan, sukaldean, etab. jolasten.
<b>Arbelaitz:</b> Ikerrek zerbait prestatu behar duenean jendea batu eta argazkiak atera.	<b>Sukaldaritza:</b> Arbelaitz, sukaldean.
<b>Mekanika:</b> Irati bere tailerrean	<b>Lurdesenen erosketak egiten.</b>
<b>Haurren zaintza:</b> Haur txokoan, liburutegian, plazan hitz egiten, eskolan haurren zain.	<b>Errueda edo bonbila aldatzen.</b>
<b>Lantalde 1:</b> orekatua. Bestela talde orekatu bat bildu argazkirako.	<b>Haurren zaintza:</b> Mutilak porteatzen, karroakin./ 2017an guraso izan direnen argazki bat. Haur txokoa, liburutegia.
Guraso elkarteko bilera.	Lantaldeak edo zinegotzi bilera.
<b>Batukada:</b> Ekainak 30ean jotzen dute.	Guraso elkarteko bilera.
Aiton amona bikotea eskutik helduta.	Bikote harremanak, maitasuna
Gimnasia.	Batukada.
Auzo lana.	Memoria tailerra, tipi tapa.
<b>Landa eremua:</b> Emakume baserritarrak.	Martxoak 8ko afaria.
	<b>Festak:</b> Plantxako eguna, etab.

**Estereotipoen lanketa:** Hitz egin da nola landu aipatutako gaiak estereotipoetan erori gabe egiteko. Hau da emakume rol kontsideratzen direnetan gizonak jarriz eta alderantziz. Hori egin behar bada intentzio garbi bat ikustea, eta, mezu bat izatea komeniko litzake. Interesgarria litzake genero ikuspuntuaren inguruan aholkularitza eskatu Sexume, gizon talde, etab.

**Argazkien prozesua:** Gaiak nahiko argi daude. Kontua da gai horiek argazkiari dagokionez nola landu. Hori argazkilariekin hitz egin beharko litzake.

Argazkilariekin argazkiak egiteko egutegi bat markatu beharko litzake. Grabaketarako egun bezala Ekainaren 5a planteatu da.

### **HAURREN HERRIA:**

Herrian antolatzen diren ekintzetan Haurren Herria proiektuaren printzipioen baitan egitea proposatzen da. Printzipioak begiratu eta ekarpenak egitea proposatzen da.

### **GOIEKI.**

Udalak urtean 586 euro ematen dizkio Goiekiri proiektu sozialak aurrera eramateko. Orain 35-45 urte bitarteko emakumeen laneratzea errazteko proiektu bat jarri dute martxan. Formazio bat eramango dute aurrera. Peoi lanetan ibiltzekoa bat eta joskintzan ibiltzekoa bestea.



Prestakuntzak ofizio baten oinarrizko formazioa + praktikaldia + 6 hilabeteko kontratua udaletan eskainiko du.

Joskuntza tailerren 2. eskuko arropa konpondu eta saltzeko lana egingo dute emakumeek. Eskualdeko 20 pertsonak izango dute programa bakoitzean parte hartzeko aukera.

Goiekik kontratatua zuen adin txikikoen babeserako zerbitzua bertan behera geratu da. Udalen ekarpenarekin orain emakumeentzat langabezia programa bat jarriko da martxan. Formazio programa bat izango da, baina detaileak ez daude argi. Enteratzekotan geratu da lantaldeko kide bat.

### **BERDINBIDEAN TXIKIAK:**

Aldundiak berdintasunaren alorrean telefono bidezko aholkularitza zerbitzua abian jarri nahi du. Galdetegi bat bete dugu, herrian berdintasunaren inguruan egiten dena, egin nahi dena, eta, dauden muga nahiz indar-guneak adieraziz.

### **ELIKAGAI BANKUA:**

Elikagaiak banatzeko garaian arazoak suertatu dira, eta, horrez gain banatzen den janariak benetan erabiltzaileen beharrak asetzen ote dituen duda dute teknikariek. Lantaldean eztabaidatu da.

### **Ondorioak:**

Dauden erabiltzaileen balorazio bat egitea planteatu da:

- Zein behar dituzten baliabideei dagokionez.
- Zein jarrera duten elikagai banaketari dagokionez.

Zerbitzua hobetzeko planteamendu ezberdinak ere bota dira lantaldean: Sukaldaritza ikastaro bat egitea adibidez. Oraingoz mataderoa den bezala utziko da, eta, ez dira takilak jarriko. Ondo egokituta geratu da, eta, janari banaketarako ez bada beste erabilera baterako hor da lokala.

Balorazioa egin eta lantaldean erabakiko da zerbitzuarekin aurrera jarraitu edo ez.

<b>ETXEKO- LANAK</b>	<b>NOIZKO?</b>	<b>ZEINEK?</b>
Topagunearen eskeletoa	2018-04-11	MAIDER – JABI
Aldizkarirako lanak.	2018-03-28	DENON ARTEAN
Guraso eskola eta eskolarekin koordinatu ekintzen proposamena.	2018-04-11	
Argazkilariekin hitz egin eta egutegiaren	2018-04-11	ERKUDEN – RUTH



programazioa burutu.

## **HURRENGO BILERA**

2018ko apirilaren 11n egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

1. Egutegirako argazkiak. (argazkilariekin bilera)
2. Topagunea.
3. Guraso eskola eta eskolan aurrera eramateko ekintzak.
4. Besteak.